

# **EIBARKO GATXIZENAK**

**Antxon Narbaiza Azkue**



**EGO IBARRA BATZORDEA. 1990**

# **EIBARKO GATXIZENAK**

**Antxon NARBAIZA AZKUE**



**"Ego Ibarra" Batzordea 1990**

**"Gizatasunez bizi izan dan Eibarko euskal herriari."**

## HITZAURREA

“Eibarren beste gaitxizen ez da erraza beste erri baten” horrela dio Toribio Etxebarriak bere “Lexicón” liburuan, gaitxizen hitza edo berbaren azalpena egiteko ematen duen adibidean.

Badirudi, gehiegi esatea ematen duen arren, horrela dela, Antxon Narbaizak burututako lan esanguratsu honetan azken 100 urteotako 1000 gatzizenetik gora jaso dira eta. Izango dira gehiago ere, dudarik gabe, baina noiz edo noiz amaitutzat eman behar eta...

Esanguratsua dela diogunean herri honen sasoi bateko idiosinkrasia, historia, kosmogonia...isladatzen direlako da. Izena eta izana, elkarrengandik hurbilago zeuden industrializazioak ate joka ziharduen sasoi haietan.

Eibarko gatzizenak ez dira inola ere iraingarri edo min ematekoak bestelako konotazio, harremanak eta funtzioak dituzte. Adierazten duten ironia jasangarria da. Eta euren betekizuna pertsona identifikatzeaz gain titularraren ingurukoak, senideak ezagutarazteko titulo banatze funtzioa bete dute.

Beraz, esanak esan, liburu honen helburua, hain zuzen ere, Eibarren eta eibartarrok amankomunean daukagun geure kronikaren parte bat azaltzea da. Ez beza inork har zazpikien erara, ez bait dago inortxo bera ere mintzeko asmorik. Geure ondarea zaintzea eta gordetzea izan da asmoa.

ALKATESA , Aurora Bascaran

## **EIBARKO GATXIZENAK**

**I.- Sarrera**

**II.- Antzinako gatzizenak**

**III.- Gatzizenak beste hizkuntzatan**

**IV.- Gatzizenen inguruan: Sailkapena**

**V.- Baina aldatu ote dira gatzizenak?**

**VI.- Zelan gauzatu dogun zerrenda**

**VII.- Kolaboratzaileak**

**VIII.-Zelakoak dira Eibarko gatzizenak?**

**IX.- Gatzizenen esplikaziñua**

**X.- Pasadizuak**

**XI.- Zerrenda**

**XI.- Eibarko gatzizenak T. Etxebarriaren obran:  
"Viaje, Ibiltarixanak eta Lexikoia"**

## I.- EIBARKO GATXIZENAK

Gizartea zer esanik ez, honetan ere, asko aldatu zaigu. Alde batetik Euskal Herri honetan ez da ohiturarik -herri handi xamarretan behintzat- gaitzizen edo izengoitiz jendea "bataiatzeko".

Deitura edo abizenak "gerra" hau irabazten ari dira. Oso euskaldun izaten jarraitzen duten herrietan ezik: Ondarroa, Azkoitia... eta beroietan ere ez aspaldiko indarraz. Elebitasunak eta giza-joerak badu hor, jakina, bere eragina.

Eibarren, zer esanik ez, ez dago, ez dugu lehengo konturik. Bizi garen sasoi honetan ez litzateke esaterako gerra aurreko hartan gertatzen zena ikusiko ez entzungo. Harako kanpotar saltzaile harek, herritar bati -beronen lantegiko atarian- ea Atxa deituradun batek non zeukan lantegia galdetzera etorri zenekoa esaterako. Han ez zuen inork gizaseme hura ezagutzen. Kanpotarrak behin eta berriro ekiten zion. Baina alperrik. Udaltzainarengana jo zuten. Honek ere idearik ere ez. "Bere apellidua ozta-ozta ekixan barren"! Gizona etsiturik udaletxera. Udaltzainburuak sekretarioarengana. Liburuetan bila hasi...Azkenean han zebilen batek argitu behar: "Hori ..." **Urlia** izango dok"... "Atxa" hura nor izango eta, kanpotarrak lehenengo aurkitu zuen herritar beraren betidaniko bazkidea negozioan! Gaitzizenaren indarra! Garai haietan zalantzarik gabe benetako izena.

Argi eta garbi esan behar lehen-lehenik euskeraren galerak suntsiketa horretan lagundu egin duela. Transmisio prozesuak porrot egin duelarik -hizkuntza helerazten ez delarik- gaitzizenak ere, zaharren erabilpenean edo oroimenean gordetzen dira soil-soilik. Bigarrenik hasieran aipaturiko giza-joeraren haritik, guzti honek herri batuago baten -eta ez bakarrik zentzu fisikoan- oroitzapenak dakartza. Bizitza amankomunago baten ezaugarri. Hobeia edo txarragoa zatekeen gizarte batena. Baina hori bai guztiz euskalduna. Nortasun Agiri edo D.N.I. zorioneko hori erabiltzeko ohitura handirik ez zuena. Zer esanik ez guk baino Aurrezki Kutxa, Banku eta abarrekin harreman gutxiago zuena. Izan ere bere "benetako" izena oso bakan ikustera ohitua zegoen gizartea zen hura. Ez eta entzutera ere, zoritxarreko soldaduskan ez bazen. Edo eta Fernando "Amezketarra"-ren adibidean bezala ahozko tradizioaren antitesia bilakatzen zen notarioaren aurrean. Oraindik orain zenbait familiak, gizataldek... bereari eusten diote, euren ezagunek eusten dietela esan beharko litzateke agian, inork gutxi aurkezten bait du bere burua gaitzizenaz. Telefono gabeko garaiak bestalde... Egun gure artean, gaitzizen edo izengoitien azken hondarrak aipatu familia bakar

horietaz kanpo kuadrilen izenak dira. Baina hauek noski gizabanakoaren betekizunik ez dutelarik. Gehienetan taldeak berak erabakitzen bait du, bere multzoari zein izengoiti ipini.

## II.- EIBARKO ANTZINAKO GATXIZENAK

Gatxizenak Toribio Etxebarriak (1) esaten dabenez gauza guztiz zabaldua genduan Eibarren. Berari be diño, "**Txindurri**" deitzen ei zetsen eskolan. Galdos Txikik, Jesusen Lagundiko beste eibartar famatu haren anaiak, ipini ei zetsan. Eskola-sasoi haretan Galdos hau gatxizen jartzaile gogorra ei zan. Hari beretik J.S.Martinek be bere Eztenkadak (2) liburuan hara zer diñon:

"Eibarren ez zan sasoi aretan gatxizen bakorik, da kanpotarrei etorri ala asmatzen zetzezen. Lelengo izena probisionala izaten zan".

Hortik etara geinke kontua zer zabaldua egoan Eibarren gatxizen jartze hau.

Ezizenaren indarra zein aundixa izan dan kontuan hartzeko, nahikoa da gure herriko 1885.urteko plano hartzea. Muestra eder bat da berori. 90 izen ageri dira bertan: lekuak, etxeak, zubi, kale eta pasialeku. Guztien artian ondoren datozen honek irakurtzea baino ez dago:

**KAMIÑOKUA, TORREKUA, MAKALARREKUA, HILARIONEKUA, KIPUTXANEKUA, CASITA CATAÑO, MAKASKUA, AMIGONEKUA, CASA DE AZPIRITXIKI, TXEPELDUKUA, ANDREZARRO, AMARRENENGUA, BITXOR AUNDINEKUA, TXIBILINTXONEKUA, MALENKARAJONEKUA, TARRANKANEKUA, INDIANOKUA, KONTADOREKUA, URBANENEKUA, casas DE PEDRO MARI (apellido edo abizenik ez!), casa de ERREMALDO, TXIRRINTXONGUA...**

Bestalde Eibarko gatxizenak badauka gutxienez berezitasun bat, bestek ez dabena. Eta da hain zuzen -SA(-SIA) atzizkiaren erabilera. Andrazkuari Eibarren -SIA gehitzen jako (3). Holan **Txaltzak Txaltxesia** dakar, **Kukuak Kukosia**, eta **Txomok Txomosia**. Edozein modutan hori ez da "automatikamente" gertatzen. Kukuak "bere" Kukosia daukan arren, eta **Katrek** bere **Katresia**, **Kalaberiar** ez jako "Kalaberasarik" ezagutzen. Ez eta **Katxori** "Katxosarik". Halan be andrazko askok bere nortasun propixua dauka, senarraren "laguntza" barik. Hor daukaguz Loretosia edo eta beste Maria guzti horrek...

(1) "*Viaje al País de los recuerdos*". (84-85-86. orrialdeak). Gaitxizena edo gatxizena biak erabiltzen dirala Eibarren esaten da bertan. (Lex. 375.orrialdea).

(2) "Eztenkadak". (79. orr.)



(3) Atzizki honek Eibarren gure azpieuskalkian izan dauen zabalpena ikusteko Lexikoian datorkigun adibidea egokia da: "Gizona barriketalarixa eta andria berriketosia, ba'dozu aspertzeko lainñ auzuan". Eta jarraian hau eransten dau:(Erderismo en que se incurre, sin perjuicio de barriketalarixa, que es lo vigente).

### III.- GATXIZENAK BESTE HIZKUNTZATAN

Historia apur bat eginez, ikusi dagigun Europako hizkuntz nagusienek zer adierazten euskuen gai honen gainean. Adibideei jarraituz, azkar asko konturatuko gara "izen-gehitze" hau ez dala atzo goizekoa.

Espainolez **Larousse** hiztegian begiraturaz, ondoko hau irakurri dogu: **APODOS: 1) Sobrenombre-alias: aluden a cualidades circunstanciales buenas o malas. 2) Mal nombre, mote: implican menosprecio, burla e ironía.**

Frantsesek ostera "surnom" eta batez be "sobriquet" darabile. **Petit Robert** hiztegian hau irakurri dogu: "**surnom familial, souvent moqueur**". Eta gero **Balzac** nobelagilearen adibidea dakar: "*Jadis les gens du peuple n'étaient connus que par un sobriquet tiré de leur pays*". Balzac-en ustez bada, gatzizenok herrietan eta aspaldi baino ez ziran erabiltzen.

Ingelesek (**Oxford Advanced** 568. orrial.) "**Nick-name**" diñue: "**Name given in addition to or altered from or used instead of the real name**". Eta ondoren adibide bi datoz: eg "**Fatty**" for a fat person; "**Shorty**" humorously for a very tall person. Guk norbaiti "Potzolo" edo "Motxa" deitzia moduan.

Germanoek azkenik "**Beiname**", "**Spitzname**" dakarre. (**Wahrig**, 613 eta 3358. orr.) Biok baina ondo bereiztuz. Lehenengua (Beiname): "**Name, den jemand zu seinem eigentlichen Namen später bekommen hat**". Laburbilduz, norberaren izenari gehitzen jakon izena izango genduke lehenengo hau. Eta euren errege ezaguna izan zan Federiko 1. "Barbarossa" aitatzen dabe. Bigarrenari barriz, "Spitzname"- ri "Neckname" gehitzen detse, esanez izen iraingarria dala.

Euskerara itzuliaz barriz, **Azkuek** bere hiztegian ondoko honek jasotzen ditu:

#### 1.-Izengoiti. (AN,BN,G,L,S.)

Beraz bizkaierak ezik gainontzeko euskalkiek ezagutzen daben berbia. Erdaretan: "**Apodo, sobrenombre, sobriquet, surnom**" jartzen ditu.

#### 2.-Ezizen (B....G..). Apodo, surnom.

#### 3.-Gaitzizen(B, G). Apodo, sobriquet.

Azkenik ez oso ezagunak diran beste bi aldaera datoz:

#### 4.-Izenburu(B). Apodo, surnom.

#### 5.- Izenordeko(B,G). Apodo, surnom.

Guzti horretatik baina gure gure gatzizen (gaitzizen) horrek dauka "gaitz" hitz horren bitartez zentzu peioratiboa hasiera hasieratik. Bestalde, antzinatek ezagunak dira gizabanakoari ezartzen jakozan ezizen eta gatzizen. Grekoen komedietako pertsonaiak zein eta erromatarrenak izen ugari emoten euskuez. Adibideren bat emotekotan hor daukagu **Plauto** bera. Bere izena antza danez, "**ploti**"-tik dator: "**anka planuak**" eukazelako itxuria. Bere antzerkietako pertsonaiak aspalditik etorren tradiziñoari eutsi baino ez zetsela egiten adierazten euskue. Esaterako bere "Miles Gloriosus" edo "Militar Harroa"-n agertzen diran pertsonaien izenak irrigarriak dira, nahiz eta grekotik hartuak izan. Batzuk baino ez doguz izendatuko: "Artotrogos", edo "Ogi-irunslia"; "Lurcio": guretzat "tripazorro"... Giza-moltzo guztietara zabaltzen zan kontizu gatzizenen izendatzia. Marco Tulio "Cicero"-k - ahalguztiduna sasoi batean Erroman- bere izen hori be gatzizen eban.

Zelan ba, erregeak ere ez dira gatzizenik barik libratu. Hor daukaguz Karlos Haundia enperadorea, edo eta **Carlos "Burusoila"**, bai eta Felipe "Ederra"...Federiko "Bizargorria" eta beste asko eta asko.... Euskaldunon artian be Nafar Erresuman "**Belak**"," **Otsoak**" eta "**Hartzak**" noiznahi agertzen jakuz, gero hain zuzen deitura edo abizenak sortuko ebezenak: Belasko,Otsoa..Gartzia.. Sarreratxo honetatik garbi samar etara geinke definiziño mailan behintzat badala alde batetik gatzizena eta bestetik beste zeredozer, izengoiti edo deituko gendukeena, berez barregarri edo irrigarri izango ez litzatekeena. Plinio "Zaharra" eta Plinio "Gaztea" esaterako erromatarren artian, **Bitxor "Aundi"**, eta **Bitxor "Txiki"**, bestiak beste gurian. Baina defiziñoak definiziño jarraitu dagiogun gure bidia...

## IV.- GATXIZENEN INGURUAN

### SAILKAPENA

Esan berri dogun moduan, bilduma honi gatzizen-bilduma deitzia ez litzateke beti bidezko. Batu dogun zerrendan danetarik dago eta. Badira bai, "gatx" edo itsusi gertatzen diranak. Norbaiti "satorra" edo "kirikixua" deitzeak ez dirudi loria botatzia danik. Edo familia bati "Kagalerianekuak" esaten jakuenian. Gauzak diran moduan diralarik, sailkapen moduko egin ahal izan dogu. Gatzizen "famiak" osotu doguz eta hara zer ikusten dan:

1.- *Animalia-izenak*. Fauna oso bat aurkitu dogu. Zoo bat betetzeko adina. Hirurogeitik gora animalia eta fristixa.

2.- *Jateko gauzekin zer ikusi daukenak*. Hamen be menurik zorrotzena, exijentiena osatzeko gai eukiko genduke. Ez da osagai gitxi! Kondimentu eta guzti ia ez da ezer falta: olixua, binagria, mantekillia, sagarrak, lekak, madarixak, txorizua eta txistorra, bakilau eta bixigu... Gainera menua elebiduna izaten da inor konfundidu ez dedin..

3.- *Lanbide edo ofizio izenak*: Arotzak eta kañoigñak, artilleruak eta boteruak, abarketeruak, ardidunak..

4.- *Sasoiko pertsona ospetsuen izenetatik sortuak*, hau da garaiko pertsonaje famatuei jarraituaz. Mimesi garbian. Toribiok esaterako berba total bati "Salmeron" esaten zetsela diño, XIX.mendeko politikari sutsu haren izenian. Ironia berbera dauka prosaikoagoa izan arren geroragoko harako "Atrasau"-k. Sail honetan batu ditugunen artian ogibide desberdinak dira: Toreruak: "Chico de la Magdalena". Boxeolarixak: Alf Brown. Kantarixak: Gardel. Kotxe-pilotuak: Linberg, Dibo..Foballistak: Campanal..Iruzurgileak: Estabiski.

5.- *Pertsonaren gorputz-neurri edo tasunei dagokienak*. Danok ez gara bardin etortzen mundura. Hori ez dago esan biharrik. Badira era guztietakoak: "Txatia" bata, "Atz Motz" bestia, "Kojua", "Ipurdigabia". "Kerizpeko limoia" (aurpegi zurixa eukalako kontizu)... Klasifikaziño honetatik kanpo geldituko litzatekez: "Querido", "Perder", "Tocayo"...Antzinakuak Eibarren eta dirudienez gertakari xoil baten inguruan sortuak. Ez dira bestalde baserriko jatorrixa erakusten dabenak sartu: "Akondia", "Agarre"...inoiz sartu sartu badira be: "Itzio", "Ikatzerre", zelanbait muestra moduan gehiago.

6.- Toki edo herri-izena daroiadak. Hamen be baserriekin moduan, antzerako gauzia egin nahi izan dogu. Aspaldi honetan herrixan sustraituak egon diranak aukeratuz: "**Madrileñuanekuak**"( ez zan sasoi haretan madrileño askorik izango Eibarren). "**Elorrixo**", "**Lastur**" eta holakoak.

7.- Inoiz gatzizen amankomunak pe aurkitzen dira. Kuadrillenak aparte lagata bat edo bat aitzatu barik ezin aurrera jarraitu. Ezagunak ziran **TXIRIKILA TA PALUA**; zein baino zein argalagoak, euren fisikoagatik oso ezagunak ei ziren maitemindu bikote bati deitzen zetsen. **ELIXA OSTEKO JOSTUNAK** gatzizena baino izenordeko normal baten itxura gehiago dauka. **ALDATZEKO IZARRAK** ostera mutil mardul eta sasoioko batzuri esaten ei zetsen. **URKUSUKUAK** Orbeatarrak ziren. **XAPU** Azpeitiarrei ez ezik, gu geu be xapu-herrikoak ei gara. Eibartarrak eta Plaentziatarrak beti alkarri adarra jotzen zeinek bestiari ziri haundixagoa sartu. Guk eureri **AUTX-ERRI** deitzen gentsen eta eurak guri ostera **XAPU- ERRI**...(Ikus Lex. 197. orrialdea). Plaentziatarren: " esan dotzat" eta holakoak ez dira ba atzo goizekoak...

Irakurleak baitxa be eztau nekerik izango hots onomatopeikoetatik sortutako gatzizen banaka batzuk topatzeko: **BEKEKE, SITO-SITO, KOKOLE** e.a.

Hortik kanpo, gatzizendun ugaritsuenen artian **MARIA** izenarekin osotutakoak daukaguz. Harrigarria zenbat epiteto gehitzen jakozen sasoi haretan orain ez bezela, guztiz errepresentatibua zan izen honi: **MARIA AUNDIXA, MARIA BIZAR, MARIA PANTORRILLA..MARIA LA DULCE** (berau gero monja sartu ei zan). Gizonezkuen artian gauzia zabalduago dago: **PATXI TXIKI, PATRI MUSTUR AUNDI, MATEO BOTOIA..**

Gatzizen ospetsuenen zerrenda egin behar bagendu bestalde "**BABA BALTZAN KOKUA**" eta "**TAK ETA ERRIALA**" irabazle izango lirake. Lehenenguaren berri badator Toribio Etxebarriaren "Viaje"-n. Eta orduan be eruallia famaua ei zan.

TAK ETA ERRIALA-ren kasuan barriz, honi pasa ei jakon gitarra jotzaile amorratua izan eta behin afinatzen ebilela:TAK eta sokia eten. Orduan esan ei zeban: TAK ETA ERRIALA, soka barrixa erriala kostatzen itxuria!

Horrek bixok dira jende guztiaren ahotan sarrien ebizenak. Apuntatzen hasi orduko edozeinek botatzen zetsuzenak.

## V.- BAINA ALDATU OTE DIRA GATXIZENAK?

Lehen eta orain gatzizenak jite edo joera berdintsuak ezagutu ote ditu? Badirudi ezetz. Hizkuntzaren diakroniatik begiratuaz behintzat garbi ikusten da hori ez dala hola. Lehenago esan dogun moduan gizartea aldatzen joan dan eran argi nabarmentzen da gatzizen ondaredun edo patrimonialak zelanbait esateko, galduaz joan dirala, gizabanako edo "individuo"-ari gehitzen jakon gatzizenaren mesedetan.(1)

Alde batetik -ENEKO atzizkiaren erabilera egoan: Bat**"PERDER"** bazan bere harikoak **"PERDERRENEKUAK"** izango ziran, eta bere emaztia ezer izatekotan **"PERDERRESIA"**. (Atzizki hau lehentxoago aipatu izan dogu). Gaur egun ostera bigarreneko atzizki hau nekez entzuten da, lehenengua oraindik bizirik badago ere. "Onenian" be familia bateko partaide bakoitzari zegokion gatzizena bertako pertsona bakar batengan isladatu izan da; ez dau alegia sustarrrik bota. Inork heredatu barik gelditu da. Aldaketa honek asko pobretzen dau gatzizena eta bidenabar hizkuntza bera. Lehen ez zan holakorik gertatzen. Esate baterako aita Cristobal izan arren eta semia Tiburtzio, azken honi **"Cristo Txikixa"** deitxuko detse. Gaur ostera gatzizena "erualiarekin" batera amaitxuko da..

(1) Ez zan lehen horrelakorik pasatzen. T. *Etxebarriak* bere Lexikoian (388. orrialdian): **"Txilibitxon"** eta **"Txilibitxonesia"**, Portalian bizi ziran eta alabiak be gatzizen hori zeroyan", esaten deusku.

Gatzizenen jarraituaz eta beste atal batian esan dogun moduan, mende honetan Eibarko gizartea gero eta elebidunago bihurtuaz joan da, hasieran ama-hizkuntzaren oinarrixa galdu barik. Baiña gerra ostetik honuntz gaztelania nagusituz joan dan neurrixan euskeraren barruko mekanismoak, -"tresna" fonetikoak zelanbait adierazteko- galduaz joan dira poliki-poliki. Guztiau pertsona izenetan ikusten da argi eta garbi. Izan be, pertsona elebidunak eta zer esanik ez elebakarrak(erderia hizkuntz ia bakartzat daukan gure honek),ez dau, jakina, erdaratiko hitza ongi edo batere ezagutzen ez daben euskarara egokitzen. Hori garbi ikusten zeban *Etxebarriak* erdarazko "Rufina" euskaraz Urrupin, itzultzen zala aipatzerakoan:

*"Estas formas euskerizadas de los nombres propios, se emplean en el caserío y no en la villa o en los estratos bilingües"* (Lex.712.orr.)

Gure zaharrek Klemente Kele bihurtu eben bada,euskerak berez holako hotsak\* iruntsitzeko izan dauen zailtasunagaitik.

**Eduardo: Erdo zan.**

**Cayetano: Kaitano.**

**Alejandro: Alikan.**

Batzutan euskal izenak izengoiti itxura gehiago dauka:

**Toribio: Tolili.**

**Leopoldo: Poltxo...**

Lexikoian adibide ugari dator:

**Rafael: Errepal da (221.orr.)**

**Francisco: Fraisko (372.orr.)**

**Aquilino: Akiliño.**

**Gregorio barriz: Gergorio(394.orr.) Kele-ren arrazoi berdinagaitik.**

**Anakleto: Ketə.**

**Romualdo: Erromaldo(482.orr.) Euskal jatorriko berba batek ez dauka R-rik hasieran.**

**Ramona Marta: Erremona Marta(492.orr.)**

**Mateo: Matio (544.orr.)**

**Miguel: Miel.**

**Agustin: Austin...**

Gure zaharrak kejetzen dira bai: "oingo izenak gatzak eta buruan gorde ezinezkuak" dirala eta..Baiña, gaurko Beñat, Anartz, Oiher... etabarrok harek bestiak baiño gatzagoak ete dira?

\* Harako muta cum liquida.....

## VI.- ZELAN BURUTU DOGUN ZERRENDA HAU

Hasi aurretik jakin bagenekien horrelako lan bitxi batek ezinbesteko mugak zituela. Hasteko, holako lan bat adinean aurrera egin dauen pertsona batek egin bihar izango eban, eta ez guk. Izen asko, igesi joan jakuz, nahiz eta beste batzuk sarean sartu izan. Pasadizuetan urri gelditzen seguruenik, baina hori be konpondu leiken gauzia da. Lanian hastia baino ez da. Hortik kanpo, norberak sasoi bat ez bizi izanak, "ei" ugari tartekatzer behartu gaitu, guk nahi ezta. Guzti hau esanda, hala eta be biharrari ekin bazetzagun, hainbat eta hainbat eibartarrek betirako joan zen sasoi bat pozik gogoratuko ebelako izan da. Eta mugak aitxatzerakoan haundienetako bat zalantza barik amaitu ezinik gelditzeko arriskua. Izan ere beti dago norbait: "Hi, apunta e'ik hau". Edo eta bestiak: "Hau..jarritxa daukak"?

Zuhurragorik ere bai: Hi, hori ez e'ik apuntau. Bada ezpada". Egia esateko gitxienak. Gaiñera gure zerrenda guztiz anonimoa dala esaterakoan ez da arazorik izan.

Inoiz mahaixan egon dan bat edo batek beriak bota eta aldegin eta geratuko danak diñotsu: "Hi, txa... hor jua dan horrena apuntau dok?" Seguruenik zerrenda hau begien aurrean ikusi bezain azkar bat baino gehiago bere lapitza hartu eta izenak gehitzen hasiko da. Hainbat hobeto sasoi hura gogoratuz aldarte ederrean egoteko bidea egiten badetsagu. Izenburuari lotuz, zerrenda bi ataletan zatitu dogu. Lehenengo eta inportanteena lekukoen sailkapena, eta bigarrenik bestearen osagarri liburuetan jasotakuak. Atal honetan, Toribio Etxebarriaren lanak hartu doguz ardatz: "*Viaje al país de los recuerdos*"; "*Lexicón*" eta "*Ibiltarixanak*". **Juan San Martinek** bere "*Zirikadak*" eta "*Eztenkadak*" liburuetan jasotakoak politik eta xebreak izan arren, ez ditugu hemen barneratu, asko eta asko berak asmatuak izan diralako. Lekukoen barruan sartu ditugu edozein modutan papeletan irakurri ditugun zenbait, hara nola M.A.Zulaikak "*Eibar*" aldizkarian batu ebazenak (284 alea)

Lehenengo zerrenda osatzerakoan kale diferenteetan bizi izan ziran herritarrak aurkitzea izan da, gizon zein andrazko lanari ahalik eta zabaltasunik haundiena emateko. Ahaztu barik garai haretan ideologia politiko desberdinetan zihardutenak. Hasiera batean adinaren aldetik 65 urte inguru horretatik gora daukaten eibartarren oroitzapenak ekarri nahi izan doguz, baina gero ohartu gara edozenbat izen kanpoan utzi beharko genduzkeela, eta hori egiteari jakina ez detsagu zuzen eritzi. Zelan baztertuta utzi "PABORREALA" edo "MATARRATAS" moduko izen ezin ezagun eta entzutetsuagoak! Gure izenok bada zabaldu egin



behar izan doguz, gerorako izenak sartuaz baina beti ere oreka bat mantenduz, erdal gatzizenak zelanbait eralgiz lantxo hau ezer izatekotan euskal edo behintzat euskal giroko gatzizenen korpus bat izan nahi bait du.

Metodologiara itzuliaz, galderak zelan egin horixe zan hasierako abiapuntu. Motorrak geldi egon badira luzaro batzutan -eta hori zan hainbaten kasuarrankatzea nekezagoa bihurtzen dalako.

“Zer kaletan bizi izan zinan umetan, gaztetan... Buruan daukazuz auzokuen izenak... Baeben gatzizenik? Eskola-lagunak... kuadrillakuak... Taillarrian... Lagungarri izaten dira holakuetan orduko fotografiak. Zuri-beltz kuttun horretan, jende ugari agertzen dan erretraturik ez da gatxa aurkitzea. Banan-bana “identifikatzen” hastean beti azaltzen da gatzizenen bat.. Horrela osotzen da lehenengo listia. Ondoren kolaboratzaileei emoten jakue aurrean dabena ikusiaz berriak eransten joan deizezen. Gatzizen batzuk baztertu bihar izan doguz guztiz barriak ziralako.

## VII.- KOLABORATZAILEAK

Egia esateko, kolaboratzaile baino gehiago egille deitu beharko genduzke. Askotan gu geuk jaso baino ez ditugulako egin, inongo galderarik luzatzeke. Baina tira, bego horretan. Hona hemen beroien izenak. Seguru asko beste horrenbeste izango dira. Zergatik eze, batek baino gehiagok esan izan desku: "Egon hari. Preguntauko jetsat " honi" edo "beste hari"... Kale Barriko Gallastegitarrak, Larrañaga-Mandiola famelixia, Maritxu Osa, Maritxu Etxebarria, Pakita Uria, Julio Arrieta, T. Azpiazu, Fausto Martínez(G.B.), Paulino Larrañaga, Alberto Markano, José Etxebarria, Luis Lasheras, J.Bernedo, Cl. San Martin, Gantxegi, Eusebio Lafuente, Ciriaco Mugerza, Olga Arizmendiarieta, J. M. Gisasola, Roberto Larreategi, Cándido Eguren, J. Aristondo... Eta soziedadiak: Dardai, Gure Bazterra, Kerizpe, Izarra, Zatixa.. AEKko langile sutsuek eurek pe zerrenda politta osotu dabe.

Azkenik, esan bihar gure metaketa biribiltzeko sasoi bateko egunkariak aztertu izan ditugula. Hartan honetan, banan-banan begiratzia lan ia burutu ezina izan da, hori dala ta muestratxo bat, aukeraketa bat egin bihar izan dogu.

Gerra aurreko "La Voz de Guipúzcoa" eta gerra ostean "La Voz" (oinguan "de España"... ) eta "El Diario Vasco". Gatzizena prentsa idatzian agertzeko nun eta nekrologiketan baiño leku aproposagorik!!, eta holan, beste apurren bat batu ahal izan dogu. Gero baiña gure informatzaile sareagaz aurrez-aurre, gatzizena benetan herritar bati zegokion egiaztatu gura izan dogu. Amaitzeko, "Eibar" aldizkaritxik be zeozer bat batu dogu.



## VIII.- ZELAKOAK DIRA EIBARKO GATXIZENAK ?

Eibarko gatxizenak Plazentzian, Ermuan, edo eta Elgoibarren topa leikezen beste hainbaten itxuria dauke. Lehenago esan dogun moduan **BOST KANTOIA, PERDER**, eta halakoak bailara guztian entzun izan doguz. Baina guretik urriñeratu ahala, gatxizenok eurok pe beste taju eta itxura hartu izaten dabe. Zaila dirudi Eibarkoak irakurri eta gero, baina giza-asmaketak ez dauka honetan be, mugarik. José Letona arrasatear poligrafo bikainak jaso zitxuazenen artian\* bada zer aukera. Badira gureekin bat datozen batzuk:

Pertsona izenak: **ALE, KELE...**

Ofizioak: **KOTXERUA, ZESTERUA, TXURRERUA...**

Eurak be badauke: **"HERMOSHO", " GIBEL", "KUARTILLO", "TAMBOR"...**

Guk Maria izenari ezizen ugari jarri detsagu, han **"MARIA MUSTUR ZIKIN"** eta **"JUANA BARRITXU"...**

Mondragoitarrak baina ez dira atzian geratzen, euren deskriziñoak ezin zehatzagoak dira; guk **JAUNGOIKUA** daukagu, eurak oster **JAUNGOIKUAN AMANTALA!**

Haren **"ZERUKO KATUA", "ZERUKO KARTERUA"**, edo eta **"KAKA ESKU"**, ez dira ez txakurraren buztana!

Gure Ego errekaaren gora dagozen gure lagun ermuarren \*\* gatxizenak ez dira gurien izakera eta edukiñetik larregi aldentzen. **TXINDURRI, OTXUA, OBOLO, MOLON...**

Alan be gaixak kombinaziño ugari eskeintzen dau: Guk **MATEO BOTOIA** edo **MATEO PAÑUELOS** badaukagu, gure auzokuak **MATEO TXARRI** ei dauke.

Guk **FELIX TXIKI** eta **FELIX AUNDI**, eurak barriz **FELIX ASTO...**

Guk **TXUTXURRUTXU**, harek **TXUTXURRUPIN**.

Jakina, gure auzotarrak eurak pe **-SA** atzizkia birizik izan dabe: **TXOTXOLESIA, KRISPIÑESIA...**

Azkenik esku artian daukagun Ane Arregi zarauztarraren **"ZARAUZKO TITULUAK"** lanian\*\*\*, ikusi geinke kostaldeko gatxizen honetan pertsona-izen ospetsu eta izen epitodun askoren artian ez dala begiratu azkar batian behintzat gure artian emoten dan ugaritasuna eta barrokismoa ikusten.

Amaitzeko esan ezin bestekoa jotzen dogula herri bakoitzak bere pasadizo, ipoin eta abarren artian gatxizenen bilduma egin biharraren premiña.

\* Anuario de Eusko Folklore (1981)

Aranzadi-Eusko Ikaskuntza.

\*\* Imanol Bustinduy-ren elkarkidetzarekin.

\*\*\* Argitaragabea (1987-19-5)



## IX.- GATXIZENEN ESPLIKAZIÑUA

Ez da erreza sarritan gatzizena honi edo beste hari zergatik jarri zetsen jakitzia. Gatzizenaren jabia oraindik bizi dalako, edo informatzailleari ez jakolako ondo begitandutzen adieraztia. Hona ekarri dogun zerrendan bada, hainbat eta hainbat argibide barik gelditzen da. Edozein modutan asko eta askori azkar usaintzen jakue nundik norakua.

Zelan edo halango sailkapen edo klasifikaziñua egin nahian hona hemen zertan gelditu dan:

### **LANBIDEAK.**

Ez doguz danak aitzatuko, horretarako zerrenda nagusira jotzia baino ez dago. Hona batzuk:

ARDIDUNA. Ardixak eukazelako.

AROTZ AUNDIXANEKUA. Epitetua arotza izatez aparte aundixa zalako.

ARMERITO. Armerua eta gainera txikixa.

ARRILARIXA. Beti gelditzen da dudia, ia noberak jasotakua dan ala Toribio Etxebarriaren Lexikoitik jasua izan dan. (Cf. gatzizen hau bertako 163. orrialdian). "Arrixan biharra egiten dauena".

BINOTAS. Ardaua saltzen ibiltzen zalako.

ERMU KAXAGIÑA. Aurretik jatorrixa markatuaz. Kaxagiñak asko kontizu baina ermuarrak.

EULOGIO TXISPAGIÑA. Txispagiñak asko baiña Eulogio zeozegaitxik ezaguna...

FOTERO. Sasoi batian fotak egiten zitxuanari. Eta gero haren sokakoeri. Armusutan batez be jaten ei ziran. Ogi txiki batzu ziran, eta etxe askotan atian ultzia egoten ei zan, okiñak ogixok bertan trabatu zeixazen. "Fotak ziran txakur-txikikuak eta txakur-aundikuak" (Cf. Lexikoia 372. orrialdia eta "Viaje...196. orrialdia).

IZOTZA. Frigorifikorik ez zan sasoian, estimatzen zan produktua. Eta haren harikueri jakina: IZOTZANEKUAK.

KAJOITXO. Lanerako objektuak sortu dau orainguan ezizena.

KATANERUA. (Lexikoia cf. 480. orrialdia KATENERUA dakar Etxebarriak). Katian egoten zalako, kobraketan, orduko zerga mota bat. Ondarruan "Katai" esaten detsena. "Alcabalero" erderaz.

KORNETIÑA. Bandan instrumento hori jotzen ebalako. Askotan baiña zurrutian deskuidatzen danari "kornetiñari emote' etsala" esan ohi da.

KORRIUA. Trenak gaur baiño protagonismo gehixago eukan sasoian... Lexikoian 497. orrialdian ANTONIO KORRIUA aitxatzen da.

KOTXERITO. Ikusi ARMERITO-ren kasua.

KUKU BARRANDERUA. Barranderuak bat baiño gehixago Eibarren baiña KUKU modukorik...

LADRILLOS. Aguazil erdaldun bati esaten zetsen, baiña baita be Matxarixan ladrilluak saltzen jarri ziran kanpotar famelixa bihargin bati.

MARIÑELA. Ez zan asko izango Eibarren...

MIELERUA. "Miel" esaten etorrenari MIELERUA deitu behar...

MINUTOS. Lanbidez fotografua zanari. Bere erretratuen propagandia be egiten ei zeban. Baina itxuria era arraroan: "Al minuto se retrata y al segundo la placa", esaten ei zeban.

OTANIANEKUAK. Ogi-klase bat. Mondragoitik ekartzen ei zan. "Trukian lana eitten ebenak, OTANIA artzen eben kontura etxerako. "(Ikus Lexikoia 610. orrialdea).

OTXABIÑA. Lexikoian 611. orrialdean: "Seguramente otxabagiña, el que sacaba la ochava a los cañones". Eta gero gehitzen du: "Otxabiña'nekuak baziran Isasi'n".

PATXI KARNAZERUA. Guk bietara jaso izan dugu; hau da:

KARNAZERUA eta KARNIZERUA. Baina garbi dago lehenengua jatorragoa dala, bokalaren aurre-asimilazioarekin.

SAKRISTAUTXUA. ARMERITO lez, Sakristaua baina txikixa...

SESTERUA. Lexikoian ostera: "Otzaragiñak, Oñati'n"...

TANBOR. Tanborra jotzen ebalako.

TANBORTERO. Maria Ospitxalenekoari.

TEJEROTXUA. Toribiok TEJERUTXUA dakar (Lex. 668. orrialdean). Beraren sasoiari "eunlianekuak eta tejeruanekuak" bazirala esaten desku.

TXANBOLIN. "Txanbolin, tanboliña jotzen dabena". (Lex.681.)

TXARLATANA. Untzaga plazara jenerua ona eta merkia saltzera etortzen zan gizasemia.

TXISPERUA. Toribiok Txispagiña dakar.

TXOKOLATES. Honek osterari saldu egiten ei zeban txokolatia.

TXUTXULERUA. Txutxuak egiten zitxuanari. "Gisasola'neko txutxuak ziran onenak". (Lex. 697.)

UMAIXO MUSIKUA. Umaixo basarriko musikua.

URREDUNA. Gaur egun be URREDUNANEKUAK. Urriaz jarduten ebelako batez be.

VOLTIOS. Eletrizistia kontizu.

ZAPATERITO. ARMERITO moduan...



## PERTSONA IZEN-OSPETSUAK

Pertsona ospetsuen izenetatik hartutakoak ugariak dira. Zelan ez! Sasoiko kirolari edo kantari ezagunari segiduan topatzen jako, antzerakoren bat kuadrilan edo auzoan. Guk hemen jakina, jaso doguzenen artean gure ustean adierazkorrenak diranak sartu doguz.

ALPH BROWN. Boxeolari ospetsu hau baltza izan, eta gatxizena jaso eban eibartarra be moreno samarra...

BISMARCK. Burdinezko kantziler alemanak be izan dau gure herrian jarraitzaillerik...

CAMPANAL. Fobalastia gerra ostian.

CANPOLO. Boxeolari famatu baten izenetik.

CONDE ARRUGA. Eibartar okulista bati esaten zetsen katalandar Hermenegildo Arruga oftalmologo famatuaren izenetik hartuta.

CHICO DE LA MAGDALENA. Toriatzaille honek izan zeban itxuria imitadorerik Eibarko zezenplazan. Ez da toreadore izenik falta ez, gure zerrenda honetan: GALLO, LITRI, FRASCUELO... Edozein modutan zaletasuna izan da Eibarren, zergatik eze Lexikoian (674. orrialdean) irakurtzen dugu Eibarren bazirala "Toriadorianekuak".

CHIRON. Gerra aurrian auto-piloto frantses ospetsua. Gurean apur bat apalagoa, Alfaneke txoferra.

DIBO. 1920.ko hamarkadan auto-piloto ezaguna.

ESTABISKI. Gerra aurrian Frantzian izan zan iruzurgille edo timadorea, zelanbait esateko. (Alexander Stavisky 1886-1934). Gure inguruan bat edo batek be ezagutu izan dau "ofizio" hori...

FUHRER. Eibarren dagoen eskolarik inportanteeneko zuzendariari esaten zetsen disziplina zorrotza jartzen ebalako.

GANDHI. Ez dakigu Gandhi-ren pelajia ekalako ala bakezalia zalako.

GARDEL. Tangista argentinarrak jarraitzaille ugari izan zeban kontizu Eibarren. Sasoi batean Eibarren erderaz sarri kantatzen ei zan kalia zein tabernan. Hortik eibartarron habanera, "sudamericana" etabarrentzako joeria. Baina euskeraz beti berba. Gero ostera euskeraz be kantatzen ei zeban jentiak, baina erderia gero eta gehiago ezpanetan. Orain ostera ez bata ez bestia....

JUDAS. "Aterru" izenpetzen eban "Correo"-ko korresponsalari esaten zetsen.

KING KONG. Tximino tzarraren ganean egindako lehenengo pelikulia 1933.urtekoa da. Harrez gero izan dira makina bat eibartar haren antza hartu izan dabenak.

LENIN. Bat edo batek bazeukan boltxebike burusoil haren trazia...

LINBERG. Atlantikua lehenengo bider gurutzatu eban abiadoriak euki eban itxuria gure artean parekorik...

MATXAKITO. Toriatzaille famatu honek be laga izan dau arrastorik.

MASKUELO. Honen barri ikus "Viaje"-ko gatxizenak aipatzerakoan esaten dana. Frascuelo toriatzaille famatuaren euskarazko bertsiñua hartu eban: MASKUELO. Perretxikulari bikaiña han esaten dan lez. Aipamen gehiago Lexikoian: 472,543 eta 683. orrialdeetan.

MIAJA. Marruecos eta ondoren Errepublikariaren alde jarri zan jeneralaren izenetik. (AÑAMENDI enziklopedian esaten danez bere benetako apellidua MECOLA ei zan, eta berak norbaiti hitzez hitz adierazitakoaren arabera, Eibartarrak izan ei ziran bere arbasoak, gero guretik alde egin eta MECOLA hori MIAJA bihurtu ei zan. Ez da edozein modutan transformaziño txikixa MECOLA-tik MIAJA-ra dagoena!)

NAPOLEON. Jeneral korsoaren antz itzala eukalako. Tanborradan be papel hori betetzen zeban.

NEGUS. Etiopiako enperadore izan zanaren trazia kontizu.

PANPLINAS. Inoiz barrerik egiten ez eban Buster Keaton komikuaren akorduan.

PERRIN. Frantzian izan ziran fisiko aita- seme ospetsuak... Ikusten denez danetik dago gatzizenen munduan...

RINTINTIN. Txakurrak eurak pe eskubide guztia dauke hemen agertzeko.

ROTXIL. Dirua barra-barra erabiltzen ebalako.

SANSON. Inoiz gizontto edozeini jarri izan jako zentzu ironikuaz... Toribiok erderaz "homúnculo" deitu ohi dauena.

TARDINI. Mesia hasitxa, eta musikia mutu, non ete da gure abade organu-jotzaillia?

TARZAN. King Kong-en moduan aspaldiko pertsonajia dogu hau. Tarzan hau sendua baino uletsuagoa da...

TON MIX. Gerra aurrian zine mutuko aktore famatua izan zanaren izenetik. Thomas Mix (1881-1940) kaoboi papelean batez be.

TXARLOT. Eibartar harek ederto imitatzen ei zeban Salon Teatroan, izan danik komikaririk haundienetakoa.

TXIKLANA. Aquilino Amuategi. "El Chiclanero" toriatzaillearen ezizenetik.

## **DESKRIBAPEN FISIKOA.**

AFRIKA. Baltza zalako. Ikusi NEGUS, eta BALTZ guztiak..

AHUNTZBURU. Jose Queridoren aitxitxa. Buruan ahuntzaren narrua erabiltzen ei zeban.

ALFILER. Aguazilla. Argala zalako.

AMERIKA TXIKIXA. Alde batetik Ameriketara egon zalako eta bestetik txikixa zalako.

ANKALATRABA. Narraza ibilkeran.

ANKAS: Anka luzia.

ARDANTZAKO AMABIRJIÑIA. Politta eta fiña zalako.

ARDIULE: Buru zurixa eukalako.

ARRAGUETAKO AMABIRJIÑIA. Ikusi aurreko ARDANTZAKO...

ARRAUTZIA. Ikusi KUKUArekin izandako pasadizua.

ATRASUA. Tartakua zalako.

ATZ MOTZ. Atzaparrak falta zitxualako.

BABALORA. Txaltxaneko neskame bati esaten ei zetsen, kolore gorrixak ekazelako.

BARONESIA. Dotore janzten zalako.

BARRIKAS. Lodixa egoalako.

BEINTICUATRO. Andrazkua erdelduna. Famosia...

BELARRI. Aundixak zitxualako.

CACHITO DE ORO. Andrazkua. Guapia. Eibarren bere sasoian izan zan neskarik ederrëna. Gero Ameriketara joan ei zan bizitzera.

DRAGABOLAS. Lepo motza zalako.

GALIPOTA. Beti aurpegi zikiñarekin.

GORRA." IXU"; erbitxalari amorratua. Gorra izan arren paradan egoala beti jakiten ei zeban nundik azalduko zan erbixa.

KANDELAS. Mokua darixola...

KARAKOTE. Kakua, sudur luzia. (Ikusi Lex.662. orrialdea: Surkarakotia: "Nariz aguileña". Famelixa aretako guztiak eben sur karakotia).

KASKURRIO. ¿Rubio? ete dan pentsatzen dau T.E.k. Kaska horri zein berba gehitu jakon jakitea da auzia. (Cf.Lex. 479.orr.)

MAILUKIA. Okots luzia eukalako.

MALANDA. Ibilkeriagatzik.

MARDUA. Berbiak berak adierazten dauan moduan gizaseme ederra zalako. (Ikus Lex. 542.orr.)

MASKARITIA. Gizonttoa zalako.

MENEOSIA. IREI baserriko andriari.

MUSTUR, MUSTUR AUNDI, MUSU ZIKIN...eta horrelakoak esplikaziño erraza dauke.

OKOTX. Urriñetik ikusteko moduko okotza kontizu.

OLLOANKIA. Gatzizen honen jabia ez zan ez mardua.

OTUA. ¿Rogado? Horixe uste dau Azkuek otu-tik erakarriaz. Etxebarriak adibide bat baiño ez dau emoten:

OTUA. "Antxiñako gizon dotore bati esaten zetsen Eibarren" (de los antiguos sobrenombres de Eibar, Lex. 611. orrialdea).

POTOLIA. Andrakumia. Gizena zalako.

SITO-SITO. Berbetan "Z" esateko eukan zailtasunagatzik.

SUMARINUA. Sudurragatzik.

PUTXA-PUTXA. (Kornelio). Berbetan atzeratua zalako.

TATA. Tartamutua.

TAKETA. Gizaseme aundixa zalako.

TIO POLLO. Kristalezko begixa ei zeukan.

TITIS. Bular ederreko andrazkoa... Euskal izenari erdarazko plurala gehitzeko ohitura be izan da. "Ohitura" hau gure aurrekoen sasoian be bazan. Hor ditugu "Patxikiletas" ("Viaje...380.orrialdean) eta barrero be "Patxiko Illetas" (Lex.207. orrialdean).

TXIPIRRIÑA. Txikixa izan...

TXIPRISTIÑA. Txikixa eta gaiñera zazpikixa...

UATXI. Doministikun egiten kanpeoia. Gogoia etortzen jakonian; lekua bihar izaten ei dau... bestela.

XANGAI ( SHANGAI). Bere txino-begixengatzik izen exotiko hori zaroian. Bat edo batek baekixan geografiarik!. XANGAI honek beste eibartar famatu baten kontra jokatu eban boxeoan. Desafixua SANTXILI-k jaso eta han batu ziran Astelehena-n berrogeiko hamarkadan. Oso entzute haundixa zabaldu eban bazterretan buruka harek. Han agertu ziren fotografo, kazetari, inguru guztiko berri emolleak. Baina itxuraz ez zan odol-jarixorik izan. Moldia txarra ez, baina indarra larregirik ez sasoi haretan... Razionamentua... eta gosia baztarretan...

## **DESKRIBAPEN FISIKOA: Izenari lotutako epitetoa.**

AIZKORIA. Bere burua'n formiagaitzik.

ALI MAYOR. ALI MENOR, ALI TXIKIXA, ALIKAN. Honek danok ALI Alejandro izenaren euskal bertsiñua. Lexikoian, ALI pelotarixa aitxatzen da: "saso baten entzutze aundikua"; 123. orrialdia.

AMANTENEKUAK.SIMONA AMANTE eta TXOMIN AMANTE. Alkar maite eben oso. Hortikan ezizena. Eta euren sokakoeri AMANTENEKUAK.

ANTON BALTZ. "Baltz guztiak beltzaranak edo Toribiok esaten dauen moduan:" baltzizkia" adierazten dabe: "Eibarko astorik jakintsuenan jabe, Anton Baltz". (Lex. 210. orrialdia).

ANTONIO TXIKIXA. Antonio guztien artian txikixena.

BRIGIDA TXATIA. Sur-motza.(Txatua que también decimos en Eibar. Lex. 662. orrialdean).

JOSE LULU. Karlistia.

JUAN PALABRAS. Berbatsua, ezkertixa, erdelduna.

JUANA CABALLO. Arrainduna. Ibilkeriagaitzik.

JUANA GORDIA. Gorpuzkeriagaitzik.

KRISTO TXIKIXA. Honen aitxari pasau ei jakon behin ederra. Isasixan behera etorrela lafiauta, geratu eben goardia zibilek. Eta esate'tse:

-¿A dónde va uté con eza carga? Bestiak erderaz ondo jakin be'z eta... Berba barik gelditxu ei zan:

-A casa Cristo.

-¿Cómo que a casa Cristo? Hasarre goardia zibilok.

Ande ute con ojo que lo` tiempo no está pa broma.

MARIA danen artian honetxek izentatuko doguz: MARIA BIZAR. "BIZAR" deitzen eben familixakua. ("Apodo común en Eibar". Lex.263.orrialdia).

MARIA OSPITXAL. Ospitxaleko garbiketia egiten ebalako. Haren seme-alaberi MARIA-OSPITXALENEKUAK.

MARIA ULE KRISPO. KRISPO honek bertoko euskeriaren erosiñua agertzen desku, kiskur edo kurruren orde. (MARIA gehixago Lexikoian 544. orrialdian).

MARTINA PARRILLA. TOOILLON famelixakua.

PATXI TXIKI. Albistegi. Tabernia Ibarkurutzian.

PEDRO asko izan kontizu kuadrilletan, auzuan eta...ondo berezitu bihar eta..hortik horrenbeste: PEDRO MENDARO, PEDRO PERALTA, PEDRO TXIKIXAK... PEPE guztiekin bardintsu...

SANTI POTXOLO. Txikixa zalako? Potxolo hori berez zulua ei da. (Ikusi Lexikoia 629. orrialdia). Honelako hitz moltzoak gauza jakina da epitetuaren lehenengo silaban daroiela azentua.

SANTI MARINO. "MARINO" horrek lanbidia ezagutarazten dau,beste ezer baiño lehenago baiña tira! Gauzia da SANTI itsasuan mariñel ebilela, heldu zirala Inglaterrara, eta portuan estututa aitxu ezinik ibiliko zalakuan, kapitanari eskatu ei zetsan laguntzeko. Baiña honek trankil ibiltzeko erantzun ei zetsan. Bermiotar kapitanak horrelako zeozer esan ei zetsan:

-Zu jun lasai tabernara eta eskatu: "One bier".

Bestiak kontizu "Eran bier", aitxu. Joan eta eskatu.

Eta tabernarixak aitxu!! Bere artian esaten ei zeban:

"Hau dok adelantua, euskeriakin edozein lekutara joa'heike".



## **TXORI-HEGAZTI IZENAK.**

Txorixak bere mokua sarri zabalik izaten dauen moduan, gatzizendun honek be barritsu famia izaten dabe. Hona hemen euretariko batzuren barri:

ARITXARRUA. Inok ez daki itxuria zein txori-klase dan hau. AZKUEK ez dakar, eta MITXELENA-k pe T.ETXEBARRIA-rengana jotzen dau. Bardin-bardin "Diccionario de autoridades"-eko egileek. Lexikoian bada, idatziriko arrasto bakarra. "Especie ornitológica de nuestros montes" esaten da. Eta gero gehitzen dau: "Gure auzoko gizon baten izena". Azkenengo -ARRO horrek badauka Karrastarro, birigarro etabaren antzik, baiña...

BELIA. Ikusi Elgeta txikixaren kontaeria.

BELA ZURIXA. Gaitza benetan BELA ZURI-rik inon ikusterik baiña bazan itxuria bateronbat.

EPERRA. Aspaldiko gatzizena: "Eperranekuan batzen ziran Eibar'ko erbilarixak". (Lex. 313. orrialdia).

GALEPERRA. "GALIPERRA" be esaten dau bateronbatek.

KARDANTXILLUA. Txori kontu honetan, barritxuak gehienak. (Cf.Lex.475.orr.Fig."hablador").

KUKUA. Ikusi ARRAUTZIA-kin izandako pasartia."Lelua" esannahixa be badauka "mozolo"kin batera.

LORITUA. Berba honek be aitatu barri dogunaren haritik: "Se usa como adjetivo para calificar de bobo, de despistado" (Lex. 529.orr.) Eta gero adibidea dator: "Ezeren kontuan jausten ez dan lorittua dozu semiori".

MOZOLOSIA. Azurkonpontzaillia herri-kontaeretan.

TARIÑA. Txori honen izena soziedade bati gelditu jako.

TXEPETXA. Txoririk txikiña dan lez, gatzizen honen eruantzaillia bera be txikixa.

TXINBO. Bilbotarrak ez ezik eibartar banaka batzuk be badira izengoiti horren jabe.

TXITXALAPURRA. TXOMINESIARI esaten ei zetsen kontuan deskuidatzen zanian (bezeroaren ustian).

TXITXIA. Edo TXITIA. Txikixa zalako. "Eibarko txitxak, oilluak", esaten ei zeben eibartarrongaitxik gauzak nabarmentzeko ohitxuria gendualako.(Lex. 694).

TXOLÑA. Andrakumeari barriketa-zalia danian. Berba hau inguruko hizkeretan be zentzu honetan erabiltzen dabe.

ZOZOGARRO. BELAZURIXA lez herri-hizkeran sortutako hitza.

ZOZUA. "Ertzill'enian danak ziran txistularixak. Ortik sosua aren gatxizena". (Lex. 693.orr.)

## **JANARI-IZENAK.**

Oraingoan jateko gauzekin sortutako gatzizenak ikusiko doguz.

ARRAUTZIA. Irakurri KUKUA-kin izandako gertaeria.

BOST KANTOIA. Sagar-klase bat. TRIKI gatzizendun bati be esaten zetsen. Elgoibarren be bada gatzizen hau.

CEBOLLAS. Auazilla gerra ostian. Hau eta zerrendan datozen:

TOMATES, TXORIXOS, VINAGRE\* auazillak, erdeldunak ziran. Euskaldunak ostera ikusi doguz A(G)UAZILLANEKUAK. Ikusi baita be: "Joakiñ aguazilla, Azkoiti'kua zan". (Lex.109. orrialdia).

KOPIA. Onegixa zalako.

MAZAPAN. Masia egiten ebalako. Panaderua.

MISPILLIA." Ustelduta gero obiak".(Lex. 553).

MOSKATELA. Tratuan gozua danari. Ikusi barriz KIRIKIÑUA.

OLIXUA. Zorreri olixua! Esaten da gure artian eguzkixak bixamunian bardin-bardin urtengo dauela adierazteko...

OGI-MAMIÑA. Ona zalako.

SAGAR-EPELA. UREPELA moduan ez gatz ez berakatz. Pertsona motela, ganora gitxikoa. Ikus SARRAPEL.

SAGAR-MUTXIKIÑA. (Sagar-umetxikiña Lexikoian 637. orrialdian) Gauza gitxi dana.

TXORIKEIXIA. Altua dalako...

URDIN. Perretxiko edo sagar-klasea.

\* Edozein modutan BIÑAGRENEKUAK : "Urkikurutzekuan ziran" (Lex.258. orrialdian).

## ANIMALIXEN IZENETATIK.

Animalixa eta fristixa, abere eta koku, honek danok barruratu doguz zerrendatxo honetan.

AHUNTZA. Ugaztun honen antza eukalako. Bai eta okotzpian eukazen lau edo bost bizar ganorabakoengaitxik.

AKERRA. Badira oin be Eibarren AKERRANEKUAK. Aspaldiko gatzizena da gure artian. Lexikoian esaten denez sasoi haretan ordurako bere zentzu peioratiboa galduta ei eukan. (Cf. 117.orrialdia).

BABA BALTZAN KOKUA. Gatzizen honek beste leku batian esaten dan moduan gure gatzizenen "hit parade"-a irabazita dauka. BABA BALTZA, guri eta gozua sasoz jaten bada, ostera laga eta laga kokua hasten bajako, akabo orduan. Horixe gertatu jakon itxuria gatzizen honen jabeari. Irakurri dagigun baiña zer diñoan T.Etxebarriak bere "Viaje"-n; "Los Apodos" deitu eban kapituluan. Ikusi horretarako 84-85. orrialdiak. Bertan gatzizenen halako sailkapen bat egiten dau. Hegazti, txori, ugaztun, arrain eta insektu. Eta azken honen artian hona zer dakarren:

("El famoso BABABALTZAN-KOKUA" izendatzen dau).

"BABABALTZAN-KOKUA -diño-, había venido a menos y vivía de los últimos destellos de su prestigio de señorito de otros días. En la taberna de Azalguia le hacían crédito, pero de demorarse tanto, el cuaderno en que sentaban sus consumiciones llegaba a su fin. Y tomando argumento de ello, se atrevió a insinuarle la tabernera:

-Mira Celestino, que ya se termina el cuaderno.

A lo que el aludido contestó diciendo:

-No te apures, mi etxeko-andra, que ya te traeré uno nuevo!".

Beste askori pasatu eta pasatzen jakon antzera, "Carpe Diem" esan izango eban. Egunera bizi gaitian eta gero gerokoak! .

Jarrai dagigun fauna ugaritsu honekin.

BASURDIA. Uletsua eta baltza kanpotik, saskarra barrutik. Irakurri Lexikoiairen aipamen ironikoa: "Gure mendixetan gastau ziran basurdak, baiña ez kalian". (222. orrialdian).

BILIXA. Baldarra zalako. Gure inguruan bakarrik erabiltzen dan berba polit hau beharko genduke gorde. Pattia eta ahatia ondo dagoz baiña beste hau be bai...

ERLAMIÑUA. Beti gainian apartau ezinda dozulako. ELTXUA bezala.

KAKALARDUA. Horrela dator gure zerrendan. "Viaje"-n ostera KAKALDARRUA izeneko beste bat agertzen da. Bat bera ete dira bixak esanahi aldetik?

KATARRA. Katuaren arra izateaz gainera, bere artasuna ondo erakusten dakixana. (Ikusi Lexikoian 480. orrialdia).

KATU BALTZA. "Martxelo KATU BALTZA, bere etaraldixetatik famatua". (Ikus Ibiltarixanak 253. orrialdia).

KIRIKIXUA. Moskatela pertsona gozua eta atsegiña bada, KIRIKIXUA ostera garratza. (Lex. 487. orrialdia).

KONEJIA. Andrakume bati esaten zetsen.

MARRASKILUA. Astiro ebilelako.

MASMIA. Zatarra?

MONIA. Hau be kontizu aurrekoaren antzerakoa. Zerrenda nagusian TITIMONIA jaso dogu.

OLLANDIA. Neskatilla liraiña dala adierazteko? Hala diño Lexikoiak: "Ollanda polita daukazu alabia" (586.orr.).

TIGRE. Indartsua zalako?

TXAKURRA. Lotsagabia.

TXIMIÑUA. Ezin zatarragoa. Sasoi batian eibartar asko bildu zan Amorotora, bertan egoan giza-tximiñua ikustera. Amerikar aberats batzuren semia zala zabaldu ei zan.

TXINDURRI. Txikixa danari. Toribio Etxebarria berari be jarri ei zetsen eskolan.  
(Ikusi Lexikoia 688. orrialdia).

TXIRTXILLA. TXIRTXILLANEKUAK ezagunak Eibarren.

XAGUA. Urola aldian eta beste hainbat lekutan gaitzizen hau ezaguna bada ere oso, Eibarren ere jaso izan dogu.

XAGUZARRA. Gabaz ibiltzen dalako..., pelajerik pe ez daukalako?

XAPUA. Azpeitia aldekoeri esaten jakue...

## ARRAIÑAK...

Ez da sail honetan aukera aundiegirik. Barruko herrixa izan kontizu Eibar, eta arrantzale baiño kazarixak ugarixago gure artian... Hona hemen edozer dalarik be aletako batzuk:

ESKAILLUA. Argala zalako.

KORROKOIA. Bastua zalako?

PAPARDUA. PAPAR aundixa eukalako ala...? PAPARDUA sasoi batian behintzat arrain merkia...

TRUTXIA. Euskeraz trakets egiten ebalako, asturiano bati jarri ei zetsen...

## **JATORRIXA ADIERAZTEN DABE.**

Herriko auzuekin zer ikusi daukenak aparte lagata: Matxari, Txonta, Maltza,...gehienak kanpotik etorri jendiaren arrasto bakan batzuk izango dira:

ALEMANA. Eibarren bizi izan diren alemanak aletakuak izan dira. Euren artian baiña entzutetsuenetakoa gerra aurrian gure artian ibili zan bat. Matxarixan egoan polboriñaren arduria berak ei zeukan. Gizon arraroa, bere txakurra urrezko agiña ipinita erabiltzen ei zeban. 1934ko Erreboluziñuan (Oktubreku) gazte bat hil zeban tiroz Matxarixan bertan eta beste bat zauritu polboriña asaltatzera joan ziranian.

ATAUN KOJUA. "ATAN KOJUA", bixetara entzun izan dogu.

ELORRIXONEKUAK. Hor dago dendia Errebalian...

ERMUARRA. Hitxano egiten ermuarrak jaun eta jabe: "Hi ama, Osbaldo Bilbora joan don"; esaten ei dabe.

KALAHORRA. Treneko enpleaua. Erdelduna. Gizon benetan ezaguna Estaziño-kale inguruan. Behin Sebastian Txalupetas-ekin batera Karmeliteri errekaia egin eta gero, preguntau ei zetsan bere lagunari ia eskupekorik jaso eban:

-¿Cuánto te han dado?

-A cada quinientas- Bestiak.

Mila esker baiño ez zitxuen jaso eta... Kalahorra eta Txalupetasen arteko pasadizo hau berau hori bai, protagonista anonimoekin, Lexikoian dator:(Cf. 337. orrialdea). Hauxe diño:

"Eruantzalle biren kontua Eibar'en. Bostegun iretako eta bostegun neretzat, milla esker emon jestaz ba bixondako". Hemen be, herriz herri dabilena, eta idatzita datorrena bat datoz. Gertaerak, batetik bestera "kutsatuz", aldatuz datoz. Anonimo diranak "haragizko" pertsonaia bihurtuz. Arketipoak sortzen dira...

FRANSESANEKUAK."Ciertos Maitre-Jean". ("Gure artera etorri ziren Maitre-Jean batzuk, atzerittik, eta eiten eben barrenatzia").Lex. 216.orr.

KATALANA. Kanpo foballian bihargin.

LASTUR. Urtiaga. Erbitxalarixa. ATZ MOTZ be esaten zetsen.



MADRILEÑUANEKUAK. Dendarixak. Ondiok bizi-bizirik dagon ezizena.

MADRILES. Madriletik bizitzera etorritako itsua.

MARKIÑA. Akomodadoria zinian.

NABARRITO,NABARRO eta horrelakoak gehixenetan gatzizenaren jabia erdelduna danian; ostera;

NAFARRA, eruallia euskalduna danian. Baiña ez beti.

OSPAS. Elgoibarko baserri honetatik etorri ziren Armerixia ikastera. Harrez gero haren sokakoeri OSPASENEKOAK. (Lex. 607).

PANPO. "PAMPAN" Argentinan emigrante egon ei zan. Gero hemengo goseteetan esaten ei zeban: "Han Pampan, han bai bizi! Hortik gero PANPO hori.

PASIEGUA. Toribiok ondo diñoan lez (Lex. 618. orrialdean) Santanderko haran laiñotsu haretatik etortzen ziran ehun- saltzailleeri deitzen jakuen.

## **OBJEKTUEKIN ZER IKUSI DAUKEN GATXIZEN BATZUK**

Banaka batzuk aitxatuko doguz hemen.

LEJIA. Solaun y Rubio-ko bihargiña. Kanpotarra. Lanetik kanpora leja saltzen ei zeban. Hortik aparte behin zazpi bare jan ei zitxuan trabesa eginda.

Teknikia bestalde horren aurreratuta dagon herri honetan ezin falta berarekin zer ikusi daukan izenik. Hor dagoz:

MALA BIELA.

MOTOR AKOPLAUA.

MOTOSIERRIA.

MUELLE ESPIRALA. Gerriak berak pe, zelan ez, izan dau bere presentzia gure artian. Alemanen;

JUNKER

ZEPELIÑAK; eta;

V 1 (UVE UNUA irakurri bihar da)

V 2 (UVE DOSA “ “ )

